

HARREMANAK

Bezera mantentzeko eta berriak erakartzeko, taldeko deskontuak izango ditugu eta aldiro joko aldaketak egingo ditugu. Kentzen diren jokoak, bigarren eskuz saltzeko utziko ditugu eta horrela norbaiti asko gustatu bazaio horietako batzuk erosteko aukera izango dute. Saiatuko gara, asteburu bakoitzean, jolasten dutenen



artean zozketak egitea. Hau eragingo du lokalera gero eta jende gehiago etortzea eta jolastea zozketak irabazteko eta sariak mota guztietakoak izango dira. Adibidez, Fan And Serious-ko eta Euskal Encounter-ko sarrerak ematen. Horrez gain, txapelketa asko egingo ditugu beste sari batzuekin. Gaur egun, jolasen txapelketak oso famatuak izaten dira eta, horren ondorioz, jende gehiago etorriko da egunak pasatzera. Amaitzeko, errekreatibo honetan hainbat deskontu dauzkagu produktu guztietan sozio txartela ateratzen baduzu, hilabetean 10€ balio duena.